



## SANTIAGO EGUNEAN –UZTAILAK 25– ETA ANDRE MARIA ZURIAREN JAIETAN –ABUZTUAREN 4TIK 9RA– OINEZ EGITEN DEN SALMENTARAKO BAIMENAK ESLEITZEKO 2024 ETA 2025EKO DEIALDIAREN OINARRIAK

### 1. OINEZKO SALMENTAREN EZAUGARRIAK

**2024an eta 2025ean**, batetik Santiago egunean –uztailak 25–, eta bestetik Andre Maria Zuriaren jaietan –abuztuaren 4tik 9ra–, jaietako puxikak, txanoak, lepo-zapiak eta beste oinez saltzeko baimenak esleitzea du xede deialdiak.

Gehienez ere **40 baimen** emango dira jaietako objektu tipikoak oinez saltzeko.

### 2. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Eskabidea **maiatzaren 17tik 31ra arte** aurkeztu behar da, **agiri hauek** erantsi behar zaizkio:

- Eskabidea / eskatzaileak izenpetutako erantzukizunpeko aitortpena, non Gasteizko udalerrian salmenta ibiltaria arautzeko Udalaren ordenantzak salmentarako ezarritako eta deialdi honek xedatzen dituzten eskakizunak betetzen direla adierazten baitu.
- **Titular eta titularkide bakoitzeko karnet tamainako argazki bana.**
- Titularraren eta titularkidearen nortasun-agiriaren fotokopiak, edo Europar Batasunaz kanpokoen kasuan, atzerritarren alorrean indarrean dagoen legeriak eskatutako lan eta egoitza baimenen fotokopiak.

Hona eskabideak aurkezteko moduak:

- Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez.
- Herritarrei laguntzeko bulegoetan.
- Gasteizko Udalaren bulego teknikoak (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, 01008).



- Baita Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako beste edozeinetan ere.

Argibideetarako telefonoak: 010 eta 945-161100.

Eskabidea postaz Udalaren Bulego Teknikoetara —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea; 01008 Vitoria-Gasteiz— bidaltzen bada, **posta ziurtatu** bidez egin behar da. Kasu horretan, Bidalketa postetxeko bulegoan zein egunetan egin den justifikatu beharko du eskatzaileak, eta egun horretan bertan jakinarazi beharko dio eskabidea egin duela Gasteizko Udaleko Merkataritza Zerbitzuari, posta elektronikoz ([comercio@vitoria-gasteiz.org](mailto:comercio@vitoria-gasteiz.org)), eta, nolana ere, maiatzaren 31rako (egun hori barne). Jakinarazpenak balioa izan dezan, eskabidea postetxean aurkeztu zen egunaren eta komunikazioen eduki osoaren berri jaso beharko da, eta **era fidagarrian identifikatu beharko dira igorlea** eta hartzailea

Pertsona bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal du. Titular edo titularkide berak eskabide bat baino gehiago aurkeztuz gero, Udal Erregistroan lehenik aurkeztu dena bakarrik hartuko da aintzat. Pertsona bera titular gisa ageri bada eskabide batean eta titularkide gisa beste batean, bi eskabideak ezetsiko dira.

Eskatzaileek titularkide bakar bat sartu ahal dute saltoki-eskabidean, eta nahitaez adierazi beharko dute bertan titularkiderik izango duten ala ez.

### 3. ESLEIPEN-PROZEDURA

---

Oro har, ez da eskabiderik onartuko deialdi honetan ezarritako epe ofizialetik kanpo. Bakarrik deialdi honetan ezarritako epe ofiziala amaitzean saltokien kopurua baino eskabide gutxiago jaso badira onartu ahal izango da epea gainditu ostean aurkeztutako eskabiderik. **Halakorik gertatuz gero, aintzat hartuko da –gehienez 60 arte– saltokien gehieneko kopurua (40) eta/edo itxaron-zerrendako lekuen gehieneko kopurua (20) bete arteko eskaera-kopurua, eskabideek Erregistro Elektronikoan jaso duten sarrera-dataren hurrenkerari jarraituta.**

Jasotzen den eskabide kopurua esleitzeko dagoen baimen kopurua baino altuagoa bada **zozketa** bidez esleituiko dira. Esleipendun suertatzen ez diren eskabideekin erreserba zerrenda osatuko da, zozketarekin bat datorren hurrenkeraren arabera.

Zozketa **ekainaren 11n** egingo da, 10:00etan, San Martingo bulego teknikoetan.



#### 4. EMAITZEN ARGITARAPENA

---

Esleipendunen zerrenda eta, halakorik behar iaznez gero, dagokion itxaron-zerrenda **ekainaren 28tik** aurrera argitaratuko da Udalaren webgunean eta iragarki-taulan. Halaber, Udalaren argibideetarako 010 telefono zenbakira deituta (945 161100 Gasteiztik kanpo deituz gero) jaso ahalko da informazio hori.

#### 5. TASAREN ORDAINKETA

---

Udal Ordenantza Fiskaletan urtero ezarritako prezioak emango du bide publikoan puxikak, lepo-zapiak, txanoak eta jaietako beste objektu tipiko batzuk oinez saltzeagatik ordaindu beharreko tasa. 2024. urterako, tasa hori **ehun eta sei euro eta hamahiru zentimokoa da (106,13 €)**.

**Uztailaren 4tik 12ra bitartean** ordaindu beharko da, bide hauetakoren bat erabiliz:

- Kutxabank, Laboral Kutxa, Abanca, Caixabank, Caja Rural Navarra eta Banco Santanderren edozein bulegotan, haiek ezarritako ordutegian, Gasteizko Udalak jaulkitako ordainketa-agiriarekin.
- Herritarrei laguntzeko bulegoetan, finantza-erakundeekin hitzartutako kreditu-txartelen bidez.
- San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, behea—, lanegunetan, 08:30etik 14:00etara bitartean. Telefonoak: 010 eta 945 16 11 00.
- A través de internet en la siguiente dirección <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/j30-01s/tramitesAction.do?lang=eu&locale=eu&idioma=eu&>

Baimena galduko du esleipendun suertatu arren horretarako ezarritako epean tasa ordaindu ez eta oinarrietako 7.a betetzen ez dutenek. Kasua hori denean, baimen horiek erreserbako zerrendan daudenei emango zaizkie, ezarritako hurrenkerarekin bat eta dagokion tasa ordaindu ondoren.



## 6. LIZENTZIAK JASOTZEA

---

**Baimenak urte bietan jaso behar dira, 2024an eta 2025ean;** baimenaren titularrak jaso beharko ditu, horretarako **nortasun-agiri originala** edo egoitza- eta lan-baimen originalak aurkeztu beharko ditu —atzerritarren alorrean indarrean dagoen legeriak eskatzen duenaren arabera—, San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea—, **uztailaren 18tik 22ra bitartean**, jendaurreko ordutegian —08:30etik 14:00etara—, aldez aurretik tasa ordainduta.

## 7. SALTOKIETAKO LANGILEAK. ESKAKIZUNAK

---

- a) Baimenen esleipendunak aritu ahalko dira salmenta-lanetan, ez beste inor.
- b) Saltzeko lizentzia jasotzeko, eskatzaileak ordainduta eduki beharko ditu Gasteizko Udalean ordaindu beharrekoak. Ofizios begiratuko da dena delakoak betekizun hori beterik duen.
- c) Gizarte Segurantzako erregimenean alta emanda egon behar du merkatariak, eta kuotak ordainduta, baimenak irauten duen bitartean.
- d) Ekonomia jardueren gaineko zergan dagokion epigrafean izena emanda egon behar da merkataria, eta tarifaren ordainketa egunean eduki, edo, salbuetsita egonez gero, zergapekoen erroldan izena emanda egotea.
- e) Beste herrialde batzuetakoek bizileku- eta lan-baimenen arloan indarrean dagoen legerian ezarritako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.
- f) Merkataritzajardueraren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruia izatea, ordainduta, eta indarrean.
- g) Araudi espezifikoek ezarritako baldintza higieniko-sanitarioak zein bestelakoak betetzea.
- h) Lizentziak norberak eta ez bestek erabiltzeko izango dira, debekatua dago haiek eskualdatzea.
- i) Baimenaren titularrek datu hauek jarri beharko dituzte ikusgai, jendeak zein ikuskatzaileek erraz ikusteko moduan:
  - Udalaren baimena.
  - Jarduerak eragin ditzakeen erreklamazioak jasotzeko helbidea.



- j) Gainerako betekizunei dagokienez Gasteizko udalerrian salmenta ibiltaria arautzen duen Ordenantzan (2016ko abenduaren 21eko ALHAO, 143 zk.) ezarritakoari jarraituko zaio.

#### 8. SALTOKIAK JARTZEKO BALDINTZAK:

---

- a) Jaietan tipikoak diren txanoak, puxikak, lepo-zapiak eta abar saltzeko baimenak indarrean izango dira, soilik, uztailaren 25ean eta abuztuaren 4ko 20:00etatik abuztuaren 9ko 24:00etara; hortik kanpo ez dute baliorik izango.
- b) Honakoak saldu ahalko dira: puxikak, txanoak, lepo-zapiak eta jaietan tipikoak diren bestelakoak. Aipatu diren artikuluez aparte bestelakoak saltzen badira, bahitu edo atzeman ahalko dira, eta dagokien dossier zigortzailea abiaraziko da, Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legean eta Gasteizko udalerrian salmenta ibiltaria arautzeko ordenantzan xedatutakoarekin bat.
- c) Posta kalean (Prado kaletik Foru kalera bitarteko zatian) eta Independentzia kalean (Foru plazako zatian) ezin izango da saldu.
- d) Oinezko salmentarako baimenak ibilian ibiltzeko aritzeko dira, eta, hortaz, ezin izango da leku finko batean jarrita egon.